| EUSKARA ZERBITZUA | SERVICIO DE EUSKERA |
|---|---|
| **Azkoitian euskara ikasteko eta UEUren eta EHUren uda ikastaroetara joateko diru-laguntzak emateko oinarriak** | **Bases reguladoras de subvenciones en Azkoitia para aprender euskera y participar en cursos de verano organizados por la UEU y la UPV** |
| **1. artikulua. Xedea**.<br><br>Oinarri hauen xedea da Azkoitian euskara ikasteko eta UEUren eta EHUren uda ikastaroetara joateko diru-laguntzak emateko oinarriak arautzea.<br><br>**2. artikulua. Irizpide orokorrak.**<br><br>Diru-laguntzen helburua da irabazi asmorik gabeko ekintzak bultzatzea. Diru-laguntza borondatezkoa eta behin-behinekoa da. Berau emateak ez dio Udalari inolako derrigortasunik ekarriko hurrengo deialdiei begira.<br><br>**3. artikulua. Bete beharreko baldintzak.**<br><br>Euskara ikasteko:<br><br>- Azkoitian erroldatuta egotea, gutxienez, ikastaroak irauten duen bitartean.<br><br>- Hamasei urte beteta izatea.<br><br>- Gutxienez %85eko asistentzia izatea ohiko, autoikaskuntza, internet bidezko ikastaroetan, ikastaro trinkoetan eta barnetegian.<br><br>- Ikastaroa gainditzea.<br><br>- Diru-laguntza bi ordainketetan jasotzea | **Artículo 1. Objeto.**<br><br>Las presentes bases tienen por objeto regular las condiciones para la concesión de subvenciones en Azkoitia destinadas a aprender euskera y participar en cursos de verano organizados por la UEU y la UPV.<br><br>**Artículo 2. Criterios Generales**<br><br>El objeto de la concesión de subvenciones es promover actividades sin ánimo de lucro. La subvención tiene carácter voluntario y eventual y su concesión no implica al Ayuntamiento ninguna obligatoriedad para la concesión de subvención en próximas convocatorias.<br><br>**Artículo 3. Requisitos**<br><br><u>Para aprender euskera:</u><br><br>- Estar empadronado en Azkoitia al menos durante el periodo de duración del curso.<br><br>- Haber cumplido los 16 años.<br><br>- Tener una asistencia mínima del 85% en cursos convencionales, de autoaprendizaje, a través de internet, en cursos intensivos y en barnetegis.<br><br>- Aprobar el curso.<br><br>- En caso de haber solicitado el abono de la subvención mediante dos pagos, en |

**ARLO EKONOMIKOA** – Tel . 943 857173 / Fax. 943 852140 – kontu@azkoitia.net
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA

| | |
|---|---|
| eskatu bada, eta ikastaroa utzi ala gainditu ezean, itzuli beharko zaio Udalari lehen ordainketaren bidez jasotako laguntza. | caso de abandonar o no aprobar el curso, se reintegrará al Ayuntamiento el primer pago de la ayuda concedida. |
| <u>UEUren eta EHUren uda ikastaroetarako:</u> | <u>Para participar en cursos de verano organizados por la UEU y la UPV:</u> |
| - Azkoitian erroldatuta egotea. | - Estar empadronado en Azkoitia. |
| - Ikastaroa euskaraz izatea. | - Asistir a un curso en euskera. |
| - %100eko asistentzia izatea. | - Asistir al 100% de las clases. |
| **4. artikulua. Eskatzaileak** | **Artículo 4. Solicitantes.** |
| Diru-laguntzak eskatu ahal izango dituzte euskara ikasiko duten eta/edo UEUren eta EHUren uda ikastaroetarako joango diren pertsona fisikoek. | Podrán solicitar las subvenciones las personas fisicas para aprender euskera y/o participar en cursos de verano organizados por la UEU y la UPV. |
| **5. artikulua. Diru-laguntzen zenbatekoa.** | **Artículo 5. Cuantía de las subvenciones.** |
| - Euskara ikasteko diru-laguntzak: | - Subvenciones para aprender euskera: |
| - Euskaltegian neguan eta udan ikastaroak egin eta gainditzen dituztenei, matrikularen %75a. Nolanahi ere diru-laguntza ez da 500,00 eurotik gorakoa izango. | - Se reembolsará el 75% de la matrícula a aquellos asistentes al euskaltegi a cursos de invierno y verano que aprueben dichos cursos. No obstante, dicha subvención no será superior a 500.00 euros. |
| - Ikastaro trinko, autoikaskuntza eta internet bidez ikastaroak egin eta gainditzen dituztenei, matrikularen %70a, betiere 600,00 euroko mugarekin. | - Se reembolsará el 70% de la matrícula a aquellos asistentes a cursos intensivos, de autoaprendizaje y a través de internet que aprueben dichos cursos, con un límite de 600,00 euros. |
| - Barnetegian ikastaroak egin eta gainditzen dituztenei, matrikula, jatordu eta egoitza gastuen %70a, betiere 1.300,00 euroko mugarekin. | - Se reembolsará el 70% de la matrícula, manutención y estancia a aquellos asistentes a barnetegis que aprueben dichos cursos, con un límite de 1.300,00 euros. |
| - Urtero eskatzaileko gehienezko laguntza 1.920,00 eurokoa izango da. | - La cuantía anual máxima por solicitante |

| | |
|---|---|
| - UEUren eta EHUren uda ikastaroetako: | será de 1.920,00 euros. |
| | - Subvenciones para participar en cursos de verano organizados por la UEU y la UPV : |
| Matrikularen, eta ez egonaldiaren, kostuaren %75a ordainduko du Udalak ikasle, langabetu, erretiratu nahiz pentsiodunei, eta %25a lanean ari direnei. Nolanahi ere diru-laguntza ez da 150,00 eurotik gorakoa izango. | El Ayuntamiento abonará el 75% del coste del curso, a estudiantes, desempleados, jubilados o pensionistas, no se subvencionarán gastos de residencia. En el caso de trabajadores, éstos recibirán el 25% del coste. No obstante, dicha subvención no será superior a 150.00 euros. |
| Laguntzetarako aurreikusitako aurrekontua goian adierazitako gehienezko laguntzak emateko bestekoa ez balitz, eskari guztien artean proportzioan banatuko da. | En el caso de que la consignación presupuestaria prevista para estas ayudas no fuese suficiente para responder a las ayudas máximas arriba señaladas, se distribuirá proporcionalmente entre todas las solicitudes. |
| **6. artikulua. Eskaeren aurkezpena.** | **Artículo 6. Presentación de solicitudes.** |
| Interesatuek Oinarri Orokorretan arautzen den eskaerarekin batera ondorengo agiriak aurkeztu beharko dituzte: | Los interesados junto con al impreso de solicitud regulado en las Bases Generales deberán presentar la documentación indicada a continuación: |
| a) Euskara ikasteko: | a) Para aprender euskera: |
| a.1.) Urrian hasten diren ikastaroen kasuan: | a.1.) En el caso de los cursos que comienzan en octubre: |
| - Matrikularen ordainketa agiria. | - Documento justificativo de pago de la matrícula. |
| a.2.) Gainerako kasuetan: | a.2.) En el resto de los casos: |
| - Matrikularen ordainketa agiria. | - Documento justificativo de pago de la matrícula. |
| - Euskaltegiak ikastaro amaieran egindako | - Certificado emitido por el euskaltegi al |

| | |
|---|---|
| asistentzia eta ikastaroa gainditu izanaren ziurtagiria. | término del curso por el que se acredite la asistencia del alumno y el haber aprobado el curso. |
| - Asistentzia baldintza halabeharrez ala ezustekoen ondorioz, betetzerik ez duen eskatzaileak egoera hori kanpoko agiri ofizialen bidez frogatu eta zuritu ahal izango du. | - El solicitante que no puede cumplir el requisito de asistencia debido a imprevistos y fatalidades podrá probar y justificar esa situación mediante documentos oficiales externos. |
| b) UEUren eta EHUren uda ikastaroetarako: | b) Para participar en cursos de verano organizados por la UEU y la UPV : |
| - Matrikularen ordainketa agiria. | - Documento justificativo de pago de la matrícula. |
| - Ikasle, langabetu, erretiratu edo pentsioduna izatea ziurtatzen duen agiria. | - Documento justificativo que acredite la condición de estudiante, desempleado, jubilado o pensionista. |
| - Ikastaroa egin izanaren agiria. Bertan asistentzia adieraziko da. | - Documento que acredite la participación en uno de dichos cursos, en el que se haga referencia expresa a la asistencia del alumno. |
| **7. artikulua. Diru-laguntzak esleitzeko irizpideak.** | **Artículo 7. Criterios para la adjudicación de las subvenciones.** |
| Azkoitiko Udaleko Diru-Laguntza Oinarri Orokorretan eta oinarri espezifiko hauetan diru-laguntza eskatzeko ezarritako bete beharreko baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiek jasoko dute laguntza. | Recibirán subvención todos los solicitantes que cumplan los requisitos establecidos para obtener la misma, determinados en las Bases Generales de Subvenciones y en estas bases específicas del Ayuntamiento de Azkoitia. |
| **8. artikulua. Ebaluazioa.** | **Artículo 8. Evaluación.** |
| Euskara teknikariak aurkeztutako eskaerak ebaluatuko ditu eta diru-laguntzen zenbatekoak erabakiko ditu. Ondoren, behin betiko erabakiaren txostena egingo du. Eskaerak jasotzeko azken egunaren biharamunetik aurrera, hilabeteko epean, proposamena ebazteko ahalmena duen udal | El técnico de euskera evaluará las solicitudes presentadas y establecerá la cuantía de las subvenciones. A continuación, redactará el informe correspondiente a la resolución definitiva. A partir del día siguiente del fin del plazo para la presentación de instancias y en el |

| | |
|---|---|
| organoari, edo honek eskuordetutakoari, emango zaio honek aztertu eta onartu dezan. | plazo de un mes, se presentará la propuesta al órgano municipal competente o éste a su delegado, para su posterior análisis y aprobación. |
| **9. artikulua. Diru-laguntzen ordainketa.** | **Artículo 9. Abono de las subvenciones.** |
| Euskara ikasteko urrian hasten diren ikastaroen kasuan, diru-laguntza eman dela jakin bezain laster, diru-laguntzaren %40a ordainduko da eta horretarako ez zaie inolako bermerik eskatuko onuradunei. Gainerako %60a onartutako diru-laguntza justifikatu ondoren ordainduko da. | Las subvenciones para aprender euskera en el caso de los cursos que comienzan en octubre, inmediatamente a la notificación de la concesión de la subvención, se procederá a tramitar el abono a cuenta del 40% de la ayuda, no exigiéndose para ello garantía alguna a los beneficiarios. El 60% restante se abonará previa justificación del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió. |
| Euskara ikasteko gainerako ikastaroetarako, eta UEUren eta EHUren uda ikastaroetako diru-laguntzak, kurtso bukaeran emango dira, baldintza guztiak betetzen direla egiaztatu eta betiere, gastua egin eta frogatu ondoren. | Las subvenciones para aprender euskera mediante los restantes cursos y participar en cursos de verano organizados por la UEU y la UPV se abonarán al término del curso, con la justificación del cumplimiento de todos los requisitos y previa realización y acreditación del gasto. |
| **10. artikulua. Diru-laguntza justifikatzea.** | **Artículo 10. Justificación de la ayuda.** |
| Urrian hasten diren euskara ikastaroen diru-laguntzaren 2. ordainketa jasotzeko honako agiriak aurkeztu behar dira urte bakoitzeko-deialdiak horretarako ezarritako azken egunerako: | Para el abono del 2º pago de la subvención concedida para los cursos de euskera que comienzan en octubre, el beneficiario deberá presentar la siguiente documentación para el último día establecido en la convocatoria de cada año: |
| a) Euskaltegiak ikastaro amaieran egindako asistentzia eta ikastaroa gainditu izanaren ziurtagiria. | a) Certificado emitido por el euskaltegi al término del curso por el que se acredite la asistencia del alumno y el haber aprobado el curso. |
| b) Asistentzia baldintza halabeharrez ala ezustekoen ondorioz, betetzerik ez duen eskatzaileak egoera hori kanpoko agiri | b) El solicitante que no puede cumplir el requisito de asistencia debido a imprevistos y fatalidades podrá probar y |

| | |
|---|---|
| ofizialen bidez frogatu eta zuritu ahal izango du. | justificar esa situación mediante documentos oficiales externos. |